

Poemas de Bitoriano Gandiaga



Xabier Egaña: Collage. 15 x 21 cm.

Lakar, arkaitz zurtz onen ganean,
 ementxe dago, makur edo zuzen, bizitzako legeari menpeko.
 Betiko apal, al dauan legez lurretik jaso, ez dauka margo apaiñik, ez
 jaiotasunik. Eraman aundiko ta garbi, ementxe dago, arkaitz zurtz,
 aratz eta gogor onen ganean.
 Ba-darioe arantzak, ainbeste bider bere burua minduten deutesen
 arantzak. Bizitzako miñak arrakalatu, bigurri dago aren subilla, aitak,
 bere esku garratzekin, okertzen zituan are-esirako adaskak bezela.
 Zarpil, gure bizitza irudi.
 Larri zaar batekin.
 Ikaratutako adaburuan, orri urratuz, adar itxusi batzuek,
 noizik bein, lore zuri ta txikiez, pozik,
 - noizik bein, pozak, bere lore txikiez, gu,
 noizik bein, poztuten gaituan lez -, noizik bein, zuri.
 Maitagarri, gure bizitza zarpilla bezela,
 pozarentzat, noizik bein, leku labur bat daukan
 gure bizitza zarpilla bezela eder,
 sastraketan edo katiatutako ardi-ule maluten antzeko itzen
 edertasuna baiño sakonago dan
 edertasun barren eta apal batez,
 ementxe dago elorria be.

(Elorri)

Permanece sobre esta roca despojada, / reclinado o enhiesto, sometido a las leyes de la vida. / Humilde, se yergue a duras penas de la tierra, desprovisto / de artificios y de prosperidad. Sufrido y sobrio / sobre esta despojada, impoluta y dura roca. / Le brotan espinas, espinas que le hieren. / Resquebrajado por el dolor infundido por la vida, su tronco es tortuoso, / como las ramillas que mi padre alabeaba para el adral. / Se muestra recio, espejo de la vida. / Acarreando una antigua herida. / En la trémula copa rasgada por hojas, unas ramas deslucidas / se manifiestan jubilosas, rodeadas, a veces, por flores blancas y pequeñas, / - del mismo modo que la alegría, / de vez en cuando, con sus pequeñas flores, / de vez en cuando, con sus flores blancas, nos regocija -. / Es adorable, como nuestra vida recia, / y hermoso, como nuestra vida recia que, de vez en cuando, / suele reservarnos un espacio corto para la alegría, / permanece entre nosotros el espino, / dueño de una íntima y humilde belleza / más profunda aún que la belleza / de las palabras parecidas a los copos de lana enganchados en el matorral.



Xabier Egaña 2003

Xabier Egaña: Collage. 16 x 21 cm.

Arratsaldea, kolore gorriz,
hiltera doa, kolore horiz,
hiltera doa, kolore hautsiz,
hiltera doa, zerutik jausiz,
jadanik zurbil,
margul jadanik.
Arratsaldea
hiltera doa,
ta, hiltan dagoena,
neure egun bat da.
Zelako antza
nire egunaren arratsaldeak
ta iluntza honek.
Igaro da nire zerbait
harutzagoko mugara,
ta harutzago nago,
lehen baino harutzago,
jadanik gauaren
argi ilunezkoan.

Jadanik muga hontan
izarrek ez dinoste
pozezko barbarik;
fede ilunaren argi
iluna dot bakarrik
eta itxaropenaren
itxaropen-eguna
oraindik ilun dago.

(Hiru gizon bakarka)

La tarde, va apagándose, / en tonos rojizos, va apagándose, / en tonos amarillos, va apagándose / en tonos frágiles, como cayéndose del cielo, / yace lívida, / macerada. / La tarde / va apagándose, / y, lo que va apagándose, / es uno de esos días que me pertenecen. / Las tardes de los días que habito / y este atardecer / se asemejan. / Algo de mí / ha transcendido hacia el límite, / allí permanezco, / cada vez más lejos, / en la luz oscura / de la noche. // En este límite / las estrellas ya no me dirigen / palabras loables; / tan solo poseo la luz oscura / de mi oscura fe / y el día esperanzador / de la esperanza / no se revela todavía.



Xabier Egaña: Dibujo. 16 x 22 cm.

Lurra hartu dut esku barruan,
eskutada lurra,
herriko neure lurra,
neure asaben lurra,
lurreko neure lurraren
lur puska ziurra.

Harriaren arreba
lurra hartu dut esku barruan,
euskaldunen ama lur,
uraren kideko lur,
suaren sostengu lur
zuraren orpoko lurra.

Lur hotza, lur beroa;
lur hila, lur bizia;
lur nabar, lur argia;
lur astun, lur arina;
lur samin, lur atsegin;
lur gogor, lur gozatsu;
lur iraindu, lur maite;
lur jator samurra.

Lurra hartu dut eskuan
mun emateko,
besarkatzeko,
bularrean herstutzeko
luzaro.
Eta gero,

neure burua baino
gorago jaso eskua,
burutik behera utzi dut
sorbaldaz behera jausten,
neure lur guztiz behera,
lurrezko bataioaren
seinaletan.

(Hiru gizon bakarka)

He asido la tierra con el interior de mi mano, / un puñado de tierra, / la tierra de mi país, / la tierra de mis antepasados, / un pedazo de tierra sólida. // Hermana de la piedra / he asido la tierra con el interior de mi mano, / la tierra madre de los vascos, / compañera del agua, / garantía del fuego, / descendiente de la madera. // Tierra gélida, tierra cálida; / tierra letal, tierra viva; / tierra parda, tierra luminosa; / tierra pesada, tierra liviana; / tierra ácida, tierra plácida; / tierra ardua, tierra fértil; / tierra ultrajada, tierra amada; / tierra sencilla y fiel. // He asido la tierra con la mano / para besarla, / para abrazarla, / para estrecharla largo tiempo / contra mi pecho. / A continuación, / levanto / la mano, / y le dejo deslizarse por la cabeza / y la espalda / a mi tierra humilde / en señal de un bautizo / hecho de tierra.



Xabier Egaña: Collage. 25 x 34 cm.

⁺
Eguneko argitan
ez da ikusten
eguneko argia.

²
Eguneko argia ~~ez~~ ¹ da ikusten, baina
³ ikusten laguntzen du.

Eguneko argitan / ez da ikusten / eguneko argia. // Eguneko argia ez da ikusten, baina / ikusten laguntzen du.

(No se ve / la luz del día / a la luz del día. // No se ve la luz del día, pero / esta luz ayuda a ver.)



Chema Elexpuru: Dibujo y transfer sobre papel artesanal. 48 x 58 cm.

+

Hainbeste zarataren
erdian, ikusten
al dugu non edo non
gabonetan Belen?

Hainbeste zarataren / erdian, ikusten/ al dugu non edo non./ Gabonetan Belen?

(¿En medio de tanto ruido, / vemos Belén / en algún lugar / durante la Navidad?)



Lucio Muñoz: Detalle del ábside del Santuario de Aranzazu, técnica mixta sobre madera. XX x XX cm.

Ongi bizi naiz ta ez dut
ongi bizitzea ~~bera bainu~~
~~baino beste zereginik.~~ aurreragokorik,
Ongi bizi, hau da nire
zereginen zeregina,
ongi bizitzea, beste
bizitzako zereginen
~~zereginena eginik~~ bizi dut nik

gainetik

~~ongi bizi, bizitzako~~
~~zereginen gainetik~~

~~ongi bizitzea dut nik~~
ongi bizi gainerako
gainetikoen gainetik

Ongi bizi naiz ta ez dut / ongi bizitzea baino / ezer aurreragokorik. // Ongi bizi, hau da nire / zereginen zeregina. //
Ongi bizitzea, beste / bizitzako zereginen / gainetik bizi dut nik / ongi bizi gainerako / gainetikoen gainetik.

(Vivir en paz / carezco de proyecto alguno / que no sea el de vivir en paz conmigo mismo. // Vivir en paz / este es
mi objetivo primordial. // Vivo el vivir en paz / por encima de todas las obligaciones / que la vida impone / vivo en
paz conmigo mismo por encima / de lo superfluo y accesorio.)



Lucio Muñoz: Detalle del ábside del Santuario de Aranzazu, técnica mixta sobre madera. XX x XX cm.

+
Erramuz ez ezik, Jesus,
jarrai diezazudala
baitare ostiral Santuz.
Errege zara Erramuz,
hiltzera kondenatua,
ostera ostiral Santuz.
Erramuz ez ezik, Jesus, eta abar

Erramuz ez ezik, Jesus, / jarrai diezazudala / baitare Ostiral Santuz. // Errege zara Erramuz / hiltzera kondenatua, /
ostera Ostiral Santuz. // Erramuz ez ezik, Jesus, eta abar

(Seguiré tus pasos, Jesús, / en Domingo de Ramos / y Viernes Santo. // Eres rey en Domingo de Ramos / y conde-
nado a muerte / de nuevo en Viernes Santo. // Seguiré tus pasos, Jesús, y etc.)



Jorge Oteiza: Ampliación en poliéster (de las escultura original en bronce) donada por el autor al Santuario de Aranzazu.

NIRE ikusmenak
ez zuen
lineal trazadutako
begirik.
Nire ikusmena
hedaduran galtzen zen,
gauzen dimentsiorik
lerro zurrunki ebakitan
inoiz enmarkatu gabe.
Orain zerua bera
neurritan ikusten dut
bere katilutasun
altu ta zabalean;
ta hiru dimentsiotako
lehia larri baten
sujetutasun kubikotan
gizona.

(Uda batez Madrilen)

Mi visión / rechazaba / las miradas / delimitadas. / Mi visión / se perdía en la distancia, / en las dimensiones de las cosas / eximidas de cualquier enmarcación / con líneas rígidamente recortadas. / En este momento percibo / el cielo en su justa medida / en su concavidad / elevada y amplia; / y divisó al hombre / en su cualidad de sujeto cúbico / inmerso en una angustiosa pugna / tridimensional.



Xabier Egaña: Collage. 20 x 26 cm.

Negar egingo dut,
Jainkoak iturri
agorarentzat urik
behar balu, neure
malkoak izan ditzan.

Baina, hala ere,
bustiko al dituzu
iturri agorrak, Jauna.
Iturri samin bat da
gaur dei dagizuna:
zeure gurariz iturri
jaio eta iturri
dela dakien iturri
erraietan oraindik
uraren salto freskorik
nabaritu ez duen
proiektu eten bat.
Jauna, noizpait,
buka ezazu zeure
iturri-lan aspaldi
utzita daukazuna.

(Uda batez Madrilén)

Derramaré lágrimas, / Señor, para suplir / al manantial seco, / si tú lo estimas / necesario. // A pesar de todo, / Señor, ¡ojalá! suministres agua / a los manantiales agotados. / Hoy es un manantial aflijido / el que te evoca: / un manantial que nació / por expreso deseo tuyo / un manantial consciente / de ser un manantial / un proyecto interrumpido que todavía / no ha sentido en sus entrañas / el salto fresco del agua. / Señor, concluye, / la construcción de esta fuente / que hace tiempo / abandonaste.



2003. Hiru jorri sakaratu. Xabier Egaña.

Xabier Egaña: Collage. 20 x 24 cm.

Poesia hau zaharra da
egunsentia bezain zaharra.
Noiztikoa da egunsentia?
Noiztikoa poesia?
Egunean eguneango lerroa dut idazten.
Egunero da berria
goizeroko ihintza.
Haize ta giro ta garai ta urtaro betikoen
gainean
betia
uneoro da berria,
haize, giro, garai ta urtaroen betiko aldakuntza
egunero, orduero estreinatuz
uneko eragin, tenple, kondizio ta
parada bakoitzean.
Pertsonok ere bagara aldiaren barruz zehar
aroak markatzen ditugun nolabaiteko neurri:
gertaera, egite, agerpen, ariketa, gusto, moda
eta abarren bidez.
Gizona zaharra da,
historia baino zaharragoa.
Mugimendurako da sortua gizona,
aritzea du ezinbestezko.

(Denbora galdu alde)

Esta poesía es antigua / tan antigua como el amanecer. / ¿A qué tiempos se remonta el amanecer? / ¿Y la poesía? /
Escribo cada día una línea. / Todos los días se renueva / el rocío matinal. / El carácter sempiterno / que se extiende /
sobre los vientos, los climas y las estaciones / se renueva constantemente, / estrenando todos los días y a todas horas
/ el incesante cambio de los vientos, climas y estaciones / en cada uno de sus movimientos, temples, condiciones / y
ocasiones. / Las personas nos inscribimos y crecemos en estas fases / y marcamos las épocas en cierta medida: / a tra-
vés de sucesos, acciones, manifestaciones, ensayos, gustos, modas / y un largo etcétera. / El ser humano es antiguo, /
más antiguo que la historia. / El ser humano ha nacido para la acción, / éste es su destino.



Xabier Egaña: Collage. 20 x 24 cm.

Pasatzen dira hodeiak,
txoriak, gaua, eguna.
Pasatzen gara geu ere.

Pasatzen gara ta ez da
egundo inon geratzen
utzi beharko genukeen
eho genuen ehuna.

(Ahotsik behartu gabe)

Pasan las nubes, / los pájaros, la noche, el día. / Nosotros también pasamos. // Nosotros también pasamos y / nunca queda en lugar alguno / el tapiz tejido / que deberíamos haber legado.

(Traducciones al castellano de Amaia Iturbide)



Xabier Egaña: Collage. 21 x 26 cm.



Evelio Albandoz: Óleo sobre madera. 41 x 29 cm.

— Ezumen baten nire hotsurrak be nonara
aldatu behar kalira, justura ni nere
gurasuen onora erantsa belitue.

—Si algún día hubieran de trasladar mis huesos a algún sitio, me
quedaría satisfecho si los llevaran junto a los de mis padres.